



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Bermeoko Erriberako kantinaren errentamendurako lehiaketa-iragarkia

2022ko irailaren 26ko 3519/2022 alkatetza dekretuz hartutako erabakiarekin bat (administrazio pleguak 2024ko otsailaren 7ko 635/2024 alkatetza dekretuz zuzendu dira), iragarki honen bidez udaltitulartasuneko lokalean ostalaritzako establezimendu iraunkor bat ustiatzeko errentamendurako baldintzak arautzen dituen deialdia egiten da.

Helburua: Ostalaritzako establezimendu iraunkor baten ustiaketa.

- Erakunde esleitzaila
 - Erakundea: Bermeoko Udala
 - Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza Saila
 - Espediente-zenbakia: IDA_ERA_0213_2021
- Dokumentazioa eta informazioa lortzea
 - Bulegoa: Idazkaritza Saila
 - Helbidea: Irakaskintza 14-16
 - Herria eta posta kodea: Bermeo, 48370
 - Telefonoa: 946179105
 - Webgunea: www.bermeo.eus
 - Posta elektronikoa: idazkaritza@bermeo.eus
- Lizitazioaren xedea
 - Mota: Errentamendu kontratua.
 - Deskribapena: Errentamendua arautuko duten baldintzak zehaztea eta esleipenerako epea irekitzea.
 - Iraupena: Errentamendu kontratuak 3 urteko iraupena izango du, sinatzen denetik hasita.
 - Luzapena: Epe hori igaro ondoren, kontratua luzatu ahal izango da eta urtez urte luzatu ahal izango da, gehienez ere 3 urtez.
- Izapideak eta prozedura
 - Tramitazioa: Arrunta.
 - Prozedura: Irekia.
 - Modua: Lehiaketa.
 - Lizitaziorako gutxieneko tasa: Gutxieneko lizitazio-tasa gisa ezarritako errentamenduaren prezioa honako hau izango da: 3.375,00 euro/urteko.
- Bermea
 - Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.
- Eskaintzak aurkeztea
 - Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailaek bi gutunazal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte proposamenak, Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 9. eta 10. klausuletan adierazitako moduan eta edukiarekin.
 - Proposamenak 20 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, modu hauetako edozeinetan:
 - BERHAZ Herritarrendako Laguntza Bulegoa, Ertzilla kalea 6-8, 48370 Bermeo.



- Bermeoko Udaleko kontratugilearen profilean: <https://bermeo.eus/1470.html>
 - Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.
7. Esleitzeko irizpideak
- Alokairuaren prezioa: 80 puntu.
 - Produktuak plastikozkoak ez diren ontzietan zerbitzatuko dituzten hornitzaileak erabiltzeko konpromisoa: 10 puntu.
 - Garbiketa-produktu ekologikoak erabiltzea: 10 puntu.
8. Eskaintzak irekitzea
- Erakundea: Kontratazio-mahaia.
 - Eguna: Bermeoko Udalaren Web orrian eta Euskadiko Kontratazio Plataformako iragarki-taulan adierazitako eguna eta ordua.
- Bermeon, 2024ko otsailaren 7an.—Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly